

XXIV. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

Ereintza Elkarteko Eskulangintza Saila



Arrabidak (rabeles). Daniel Peral.

Argazkia: Foto Poly

SARRERA

2002. urteko Euskal Herriko XXIV. Eskulangintza Azoka Maiatzaren 1tik, asteazkena, Maiatzaren 5era, igandea, ospatu da, eta iaz bezala Udal Pilotalekua eta haren ondoan erakitako oihalde edo karpa bat izan du kokagune. Egoitza honetan azkeneko urteetan jasotako esperientzia baikorraren ondoren, aurten azokaren azpiegitura hobetzeko beste ahalegin bat egin da, stand-etako materiala berritu eta egokituz.

Ondorioz esan dezakegu antolatzaileen asmoak bete egin direla, eta hemen doakie "OARSO" aldizkariaren irakurleei aurtengo azokaren berri laburtua.

GAI BEREZIA: MUSIKATRESNAK

Urtero (ohizkoa den moduan), gai edo material bati atal berezia eskeintzen zaio Azokaren barruan, bide batez horren inguruko zenbait arlo jorratzeko aprobetxatzen delarik. Bestalde Errenteriako azokak berezitasunik baldin badu, artisauek bere ekoizpenen lan-prozedura "in situ" erakutsi behar izaten dutela da. Aurtent, bi oinarri hauei, Errenteriako "ERESBIL" Musikaren Artxibutegi Nazionalak bere kokapen berria aurki inauguratuko duela gehitu zaio, eta ondorioz musikarekin zerikusia zuen gai bat hautatzea bidezkoa iruditu zitzaigun. Honela MUSIKATRESNAK gaia harturik, Azokara etorritako 10 artisaunen bitartez, egun Euskal Herrian musikatresnen inguruan dagoen



Argazkia: Foto Poly

Ardazketa. Ana Mª Montalban.

errealitatearen zati bat ikusteko aukeraz aparte, euskal musikatresnen erakusketa eta kontzertu didaktiko batekin osatu zen gai honen inguruko eskaintza.

ZABALTZEKO UNEA

Azokaren zabaltze ofiziala, Maiatzaren 1ean, asteazkena, goizeko 12etan egin zen. Pello Iburguren Ereintzako lehendakariaren ongi-etorriaren ondoren, Foru Aldundiko Ekonomi Saileko Diputatua den José Ramón Beloki jaunak hartu zuen hitza, eta bere ondoren, amaiera emanaz, Erreterriako Alkateak, Miguel Buen jaunak. Bere babes eta laguntza ematen diguten entitateen ordezkariak ere bertan zeuden: hala nola Gómara jauna, Kutxakoa; Mª Angeles Machin Kultur Saileko zinegotzia; eta beste zinegotzi eta komunikabideetako ordezkariak

ARTISAU PARTE HARTZAILEAK, LANGINTZAK ETA GEOGRAFI JATORRIAK

Ohiko irizpideak jarraituz, hau da, kalitatea, aniztasuna, berrikuntzak, geografi oreka, eta gunearen espazioa kontuan hartuz, prozedura luze baten ondoren osatzen da artisauen zerrenda. Aurten gurekin izan ditugun 62 artisauen langintza eta geografi jatorriak honela sailkatu dira:

Gai berezia: Musikatresnak: Txistua (1); Xirulak, albokak, txalaparta, okarinak (4); Soka musikatresnak (2); Haize musikatresnak (1);

Akordeoiak-trikitixak (1); Dulzainak eta Danborrak (1).

Zura: Altzarigintza eta taila (4); Makilak, zaliak, kaikuak, (3); Jostailu eta torneatuak (2); Xareak (1).

Otargintza (2)

Buztina eta harria: Buztingintza (2); Zeramika (3); Argintza (1).

Beira: Beira tailatua (1); Beira puztua (1); Beirateak eta "tiffanys" (2).

Larrua: Pilotak (1); Zahatogintza (1); Guarnizioak eta larrugintza (3); Oinetakoak (1).

Ehuna: Ardazketa (1); Ehungintza eta artileak (2); Espartinak (1); Seta margotua eta serigrafia (3).

Burni eta metalak: Burdinlantza artistikoa (1); Bitxigintza (2);

Kozkadurak (1); Esmalte eta grabatuak (2).

Papera eta kartoia: Koadernaketa (1); Kartoi-harria (2); Kriseiluak (1).

Bestelakoak: Oihalezko panpinak (1); Lore idortuak (1); Larrux lanak (1).

Elikadura: Taloak (1); Erlazaintza (1); Garrapiñadak (1); Edarigintza (1).

Langintza hauen artean azpimarratzekoa izan da beira puztua eta burdinlantza artistikoren artean osatutako tailer bateratua. Labearekin eta suteiarekin zuzenean lan egiteak dakarren ikusgarritasunetik aparte, esperientzia honen bitartez artisauen arteko lan bateratu batek eskaintzen dituen ahalbide eta bideak erakutsi nahi izan dira.

Geografi jatorriaren arabera berriz, Gipuzkoatik (25), Arabatik (8), Bizkaitik (9), Nafarroatik (14) eta Ipar Euskal Herritik (6) etorri dira. Hauetatik hamazazpiren bat berriak, hau da, lehen aldiz Erreterriako Azokara etorriak. Artisauak eskaintako ekoizpen edo produktu motei dagokienez, berrikuntza nabarmenak ikusi dira, Eskulangintza poliki-poliki aurrera doala erakutsiz.



Argazkia: Foto Poly

Stand Onenari Saria. J.A. Gisasola.

BISITA EGUNAK

Etorritako artisauek ahal zen etekin gehiena atera zezaten helburua harturik, Maiatzaren 2an eta 3an (osteguna-ostirala) lanegunak izanik, ahalegin berezi bat egin zen jendea erakartzeko, bide batez ikusleei artisauekin harreman eroso bat izateko aukera eskainiz. Horrela, sarrera-prezioaren murrizketarekin batera Azokara etortzeko gonbidapen berezia egin zitzaion ikastetxe, turista taldeei eta erretiratuen elkarteei, eta hainbatek ondo erantzun zuten.

HOBEEKIEN APAINDUTAKO ERAKUSGUNEARI SARIA

Zortzigarren edizioa betetzen duen sari hau, Gipuzkoako Merkataritza Bazkunderari esker gauzatzen da, eta Azokan parte hartzen duten artisaunen artean, kalitate estetiko onena erakusten duen "stand"-ari ematen zaio, erakusle guztiek dekorazio deigarria prestatzeko ahaleginak egitea bultzatu nahian. Beraz, Bazkunderak berak izendatutako epaimahiak, "bere lehengaietan edo landutako produktuetan oinarrituta erakusgunea hobekien apaindua duenari" ematen dion sari hau, Eibartik etorritako J.A. Gisasola oihalezko panpin-egilearentzat izan zen. Honela 300 eurok eta Agiriak osatzen duten saria, Maiatzaren 2an, osteguna, arratsaldeko 4,00etan eman

zitzaion irabazleari, epaimahiaren ordezkaria Iñigo Zabaleta jauna izan zelarik.

ERAKUSKETA: SOINUTRESNAK EUSKAL HERRI MUSIKAN

Hainbatetan, Azokaren urteroko gai bereziari lotuak batipat, mota ezberdinetako erakusketak antolatu izan ohi dira. Aurten beraz, programan nagusi izan den musikatresnen gaiari jarraiki, "SOINUTRESNAK EUSKAL HERRI MUSIKAN" izeneko erakusketa antolatu zen, Maiatzaren 1etik 5era Xenpelar Erakusketa Aretoan.

Erakusketa hau, azken garaian euskal herri musikan erabili, ezagutu eta agertu izan diren soinutresnez osatua, J.M. Beltran Argiñena jaunaren gidaritzapean egin zen, Oiartzungo Herri Musika Txokoaren bere bildumako zenbait soinutresnez baliatuz; Euskal Herriko kultura eta bereziki herri musika era didaktiko, ulergarri eta entretenigarrian mota guztietako ikusleen eskuetan jartzea zuela helburu.

Erakusketa hau osatzen zuten 100dik gorako soinutresna eta hots jostailuak, hots iturri edo hots eragileen sistemaren bidez taldekatuak eta sailkatuak agertzen ziren, soinutresnen eta joleen inguruko argazki eta gutunekin lagunduta, bost talde nagusi osatuz:

IDIOFONOAK edo kolpez eragindako hotsekoak, bere lau sailkapenekin: era zuzenean jotakoak (OTE JOTZEKO TRABAZAK, TXALAPARTA, TOBERAK, KRISKITINAK...), era ez zuzenean jotakoak (abereen ZINTZARRIAK...),



Argazkia: Foto Poly

Azokako ikuspegi orokorra.

igurtzitakoak (TARRAKAK, BOTILA ZIMURTSUA...), eta punteaturikoak edo malguak (MUSUKITARRA, IGELA...).

MENBRANOFONOAK edo membrana baten bidez eragindako hotsekoak, hiru sailkapenekin: perkutitu-kolpeatuak (DANBORRA, ATABALA, PANDEROA...), ziri edo sokaren bitartez igurtzitakoak (TTIPIUNTZIA, ELTZEGORRA...) eta ahotsaren bidez eragindakoak (sahatsa eta kañaberazko TURUTAK...).

KORDOFONOAK edo soka baten bidez eragindako hotsekoak, hiru sailkapenekin: pulsatutako soka (LAUTEA, BANDURRIA, KITARRA...) igurtzitako soka (BIBOLINA, ZARRABETE...) eta kolpeatutako soka (TTUNTUNA, SALTERIOA, ARRABITA...).

AEROFONOAK edo haizearen bidez eragindako hotsekoak, hala nola: flauta zuzenak (TXISTUA, XIRULA, TXILIBITUAK...), zeharkako flautak rondalletarako, bestelako flutak (PAN delakoa, OKARINA...), mihien bibraziokoak (AKORDEOIA, DULTZINA, XIRULARRUA, ALBOKA...), eta ezpainen bibraziokoak (TRONPETAK, ADARRAK...).

HOTS-JOSTAILUAK, hau da, hurrek hotsa eta musikarekin jolasteko eta entretenitzeko erabiliko edozein tramankulu.

EUSKAL HERRI MUSIKA ETA SOINUTRESNEN KONTZERTUA

Aurreko erakusketaren osagarri bezala Maiatzaren 3an, arratseko 8etan, Errenteria Hiriko Gune Kulturean, Euskal Herri Musika eta Soinutresnen kontzertu bat eskeini zuen J.M. Beltran Argiñena jaunak, bere betiko maisutasunarekin.

Hitzaldi-emanaldi horrek, soinutresnak eta beraien erritmo, doinu eta tinbreen bitartez,

Euskal Herri Musikaren zenbait alderdi erakustea zuen helburu. "Herri musika"ren barneko alderdi batzuetara hurbiltzeko aukeraz baliaturik, bertan Euskal Herriko zenbait eskualdetako ospakizun publiko nahiz familiarretan erabiliak izan diren soinutresnak eta musikak entzuteko aukera atsegina eta ezin hobea izan genuen.

WEBB-ORRIA

Informatizazioaren garaian gaudenez eta gure instituzioak aldarrikatzen ari direnari so eginez, aurtengo ekitaldirako berritasunen artean, Interneten gune bat sortu izana azpimarratu behar da. Hortaz, www.ereintza.com orrian sartuta, edonori parte-hartzaileen izena, harremanetarako telefonoa, garatzen duen artisautza, etabar eskeintzen zaio. Horretaz gain azken albisteak, stand bakoitzaren kokapena, babesleen zerrenda, prentsa txostenak eta Azokarekin zerikusia duen guztia orri horretan aurki daiteke.

BUKAERA GISA

Azkenik, Errenterian ospatu den XXIV. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka eta Musikatresnen Erakusketa aurrera eramatea posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Lehenik eta behin, parte hartu duten artisauguztiei; eskerrak ere, etorritako ikuslegoari, hala nola bere lana eta ardura jarri duten komunikabide eta beste hainbat zerbitzuei; eta nola ez, etorritako Agintariei, eta beren laguntza eta babesa urtero ematen diguten Erakundeek: Gipuzkoako Foru Aldundiari, Errenteriako Udalari eta Gipuzkoa-Donostia Kutzari. Dohaikiela berriro ere guztiei gure eskerrik beroena.

Ea hurrengo urtean, XXV. edizioa betetzen dela kontuan harturik, denon artean zerbait berezia egiteko ahalmena dugun!



Ehunaren serigrafia "Tartalo".



Oialezko irudiak.